

## EUSKAL AZENTOA

*Durango, 1986-V-30*

*Jose Basterretxea*

*“Oskillaso”*

Azentoak bereizten dau plurala singularra ta indefinidotik. Izen pertsonalak eta izen geografikoak eztauke pluralik. Hasi gaitezen ba izen pertsonalak eta geografikoak aztertzen. 1974ko *Fontes Linguae Vasconum*'en, 18gn zenbakian, 364gn orrialdean, izen pertsonalen zerrenda bat dago. Irakurri daigun:

Agapitto

Ageda

Austiñ

...

188 izen pertsonalen zerrenda honetan 64'k hiru silaba baño gehiago dauke, 123 bi edo hiru silabakoak dira, hñonen arte 78 prototonak dira, hau da, lehenengo silaban dauke azentoa, ehuneko 63.

F.L.V.ko esandako zenbakian, 368gn orrialdean hasten da izen geografikoen zerrenda bat. Irakurri daigun:

Abadiano

Abadiño

Acorda

Akorda

Ajanguiz

Aijengiz

...

231 izeneko zerrenda honetan 133 bi edo hiru silabakoak dira. Euren arte 21 bakarrik dira prototonak, ehuneko hamasei baño gitxiago.

Irakurri dotezen berba guztiak dauke lehenengo azentoa lehenengo edo bigarren silaban.

Hiru silaba baño gehiagoko berbak ezin dira izen prototonak. Sustantivo eta adjetiboen arte oso gitxi dira prototonak.

Ikusi daigun oraiñ zelan aldatzen dan azentoa pluralean. (F.L.V., 1975, 21gn zenbakia).

Fraser nominalaren pluralaren entonaziñoak hiru zati daukaz: Lehenengoan silaba bat tono normalean, bigarreanean edozeinbeste silaba tono altuan eta hiru-

garrenean silaba bi tonu bajaran. Lehenengo zatian silaba bat, bigarrean bat gitxienez eta hirugarrenean bi. Pluraleko entonaziño osoa eukiteko berba batek gitxienez lau silaba euki behar dauz. Bi edo hiru silabako berbak eztabe betetan pluraleko entonaziño osoa eta prototonak izan daitez. Silaba biko berbei lehenengo zatia falta jake pluralean, eta baldin prototonak badira singularrean be bai. Hirugarren zatian silaba bakar bat baño eztauke. Singularra ta plurala bardiña da silaba biko berba protonetan. Hiru silabako berbak bitara egin leike plurala: nahiz silaba bat zati bakoitzean, nahiz lehenengo zatian bapez, bigarrean bat eta hirugarrenean bi. Hiru silabako berba prototonak bardiña dauke singularra ta plurala.